

IRAKURMENA

2. testua

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondorengo orrian aurkitu testutik kendutako zatiak. Esaldi bat sobera dago. 0 adibidea da.

Idatzi **letra** dagokion laukian.

* Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1** lortuko duzu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

Atezain automatikoa

ETXEKO atezain automatikoak kudeatu eta mantentzen dituen enpresak ohar bat jarri digu atarian: -----**(0)**-----, asteartean uste dut, goizeko 11.30etatik aurrera tramankulu automatikoak aztertuko dituzte etxez etxe, pisuz pisu, eta, beraz, bizilagunok etxeetan, pisuetan, egon beharra daukagu, bai ala bai, lana errazteko. Oharrak kutsu larderiazkoa du, mehatxuzkoa: ez da zehazten zer gerta dakigukeen agindua betetzen ez badugu, -----**(1)**-----, Oharra gaztelaniaz dago, jakina, ez euskaraz, ezta ingelesez ere. Alemanieraz ere egon zitekeen idatzita, -----**(2)**-----.

Zer egin? Bizilagun batekin zerbait adostu? Argi dago oharra idatzi duten burutxo argietan familia eredu bat dagoela: aitatxo (aita, barkatu euskaltzale jatorrak), amatxo eta seme-alaba batzuk; aita lanean, seme-alabak eskolan eta ama -----**(3)**----- Ez zaio burutik pasa agian ama ere lanean egon daitekeela eta astegun buruzuri batean, goizeko 11etan, ez dela inor etxean egongo. Edo agian oharra idatzi duenak kontzientzia soziala oso garatuta du, eta etxe guztietan langabeturen bat dagoela uste du. Edo agian oharra idatzi duenak badaki gaur egun aitona-amonak asperturik daudela -----**(4)**----- Edo guztiok dugula neskame hegoamerikarra. Baina gure etxean, hoguei etxetxo, hoguei pisu, gutxi gorabehera, -----**(5)**-----.

Atezain automatikoak konpontzen dituen enpresak bezala, jende askok uste du -----**(6)**----- bizi garela, emakumezko guztiak ama direla eta gizonezkoak aita, ume txikien gurasoak elkarrekin bizitzen zoriotsu, esan nahi dut. Politikari askok ere, ekonomilariak bezala, -----**(7)**-----, herritarrak, norbanakoak albo batera utzita, baina baita betiko familia tradizioaletan sartzen ez direnak ahanztiz ere. Bien bitartean bizitza bere bidetik doa betiko moduan, bere hartan.

Ondoko aukideak, -----**(8)**-----, ni etxean izango naiz eta.

Rikardo Arregi, *Deia*, 2012/11/28. Moldatua.

2. testua

Jarri testu-zati bakoitza dagokion hutsunean. Idatzi erantzunak beheko laukian, adibidean egiten den bezala. Esaldi bat sobera dago.

a. gogoa nazien garaietara joan baitzitzaidan bat-batean

b. eredu hori minoritarioa da

c. familiaz hitz egiten dute etengabe

d. ez dakit zein egunetan

e. oraindik guztiok aipatutako familia eredu horretan

f. gauza hauetarako, eta beste askotarako, etxean

g. adineko emakume batek, bere giltzak utzi dizkit

h. baina ezin gauza onik espero

i. ezer egin barik, boluntario eta beti prest gauza hauetarako

j. horregatik baztertzen ditugu

Idatzi erantzunari dagokion letra ondoko laukietan:

0.- D	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-	8.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----